


noaua



"TXIRIKORDAN BIZI GARENON INPLIKAZIOA HANDIA DA, ONENA EMATEKO BORONDATEA DUGU"

Arantzazu Aranburu eta Aitor Zabaletarekin bildu gara, Txirikordaren inaugurazioaren bezperan / 06-07

ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

Baserritarren Eguna ospatzeko egitarau oparoa iragarri dute asteazkenerako / 10



NOAUA

11 ikastetxetako ordezkariak elkartu ziren Elhuyar Zientzia Azokan / 12



NOAUA

Ohitura zaharra giro ederrean berritu zuten Andatza zontorrean / 14



NOAUA

Larunbatean, Emakumeen Etxean, kutsu feminista duen komedia saioa / 22



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN GUZTIAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24 orduz)

·BEILATOKI GUZTIAK · ERRAUSKETAK · LEKUALDAKETAK



www.funerariagonzalez.es



NOAOA
BIDAIAK



Puglia
(Italia)

IRTEERA 2024ko urria

Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

USURBILGO LANBIDE ESKOLAko
AURREMATRIKULA



MAIATZAREN 6TIK 24RA

PRESENTZIALKI ZENTRUAN
Hartu hitzordua 943 364 600 telefonoan.
Astelehenetik ostegunera 8:30-17:00
Ostiraletan 8:30-14:30

ONLINE
www.ikasgunea.euskadi.eus

TEL. 943 36 46 00 **WWW.LHUSURBIL.EUS**

"DYAra noa ikastera"

Udalak aditzera eman duenez, "egunero egongo da irekita eta ordutegi zabalagoa izango du". Astelehenetik igandera, goizeko 08:00etatik 22:00etara.

Behin-behineko ikasgela ireki da, berriz ere, DYArekin Munalurrako lokalean. Maiatzaren 2an zabaldu zuten bertan ikasteko aukera eta maiatzean eta ekainean zehar astelehenetik igandera egongo da ikasgela irekita, goizeko 08:00etatik gaueko 22:00etara. Hamasei laguntzako lekua egokitu dute.

Urte hasieran bezala

Ikasgela irekitzen den bigarren aldia izango da. Lehenengoan,

ren ondoren, 2024ko urtarriaren amaieran, erabiltzaileek gelaren balorazio positiboa egin zuten. Hobetzeko proposamenen artean, hain zuzen ere, gela igandeetan ere irekitzeko aukera aipatu zuten.

Sutegiko aukera ere hor dago

Sutegi liburutegian bada ikasteko espazioa oraindik, baina hainbat erabiltzailek ohartarazi izan dute ez dela egokia. "Arazo hori bideratzeko proiektua idatzia du udalak, eta bitan



Maiatzean eta ekainean, DYAko egoitzaren gela bat ikastoki izango da.

argitaratu du lizitazioa: bi aldietan, ordea, hutsik gelditu da", udaletxetik aditzera eman dutenez. "Ikasgela egoki baten beharrak bultzatuta, DYArekin hitz egin eta haiek erabiltzen

duten lokala urtean bitan behin-behineko ikasgela gisa erabiltzea adostu genuen udazkenean, eta iazko abenduan erabili zen lokal hori ikasgela gisa lehenengo aldiz".

Garbigune mugikorra, Aginagan

Maiatzaren 9tik aurrera, garbigune mugikorra Aginagan izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Maiatzaren 16an garbigune hau Zubietara eramango dute.

1964an jaiotakoen bazkaria ekainaren 1ean izango da

Bazkaria Atxega jauregian egingo da. Izen-emateko epea ere finkatu dute; maiatzaren 15era arte 647 458 997 telefono zenbakian (Mari Jose). Telefono zenbaki horretara deituta jaso ahalko dira ordainketa nola egin nahiz hitzorduari buruzko argibide gehiago.

41. Sagardo Eguna maiatzaren 19an ospatuko da

Badator usurbildarren festa kuttunena. 41. Sagardo Eguna maiatzaren 19an izango da.

Ohi bezala, baserriko zein sagardotegi ezberdinetako edariak dastatu ahalko dira, Sagardo Egunaren Lagunak taldekoen eskutik.

Mikel Alkorta eta Joseba Tapiaren emanaldia

Aitzaga kultur elkarteak, bere 30. urtemugan, kontzertua iragarri du larunbat honetarako 22:30ean Sutegiko patioan; Mikel Alkorta eta Joseba Tapiarena hain zuzen. "Animatu eta hurbildu, giro ederra izango dugu eta!", egin dute gonbita antolatzaileek.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Aiaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzzaileak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



ALAZNE ARRUTI

Basa-lore sorta bat ebakitako zilbor-hesteei

Anaia, iloba txikia, lehengusina eta bikotearekin batera abiatu nintzen larunbatean, San Estebango ermitatik barrena Andatzarantz. Eguraldiari errespetuz erreparatuaz hasi genuen ibilbidea, baten bati txangoa ez zapuzteko eskatu nahi bagenio bezalaxe.

Hitzordua adostu genuenean, aspaldian tontorrera ez nintzela igo pentsatu nuen. Gertu izanagatik, ez baita sekula nire ohiko mendieta-ko bat izan. Maizago jo izan dut Kukuarrira edota Her-niora ere.

Dena den gustura ekartzen dut gogora, bertara samurtasunez lotu ohi nauen oroitza-pen bat. Bizi izan ez banuen ere, bere garaian, album zahar batean topatutako argazki bati esker gorpuzteko gai naizena, behar dudan orotan.

Aipatutako argazki horretan, Andatzako egurrezko aterpearen parean ageri dira etxeko bi amonak. Ikurrina batzuen eta zuhaitzen artean, egurrezko eserlekuetan deskantsuan. Egun eguzkitsua dirudi eta urte luzeetan etxean lanerako erabili ohi izan ditugun arropak ikusi daitezke non nahi. Izan ere, ohartzeko, mendira joateko arropajeak ere aldatu ziren noiz-bait.

Aitaren ama eserita, bas-toiari bi eskuekin heldu eta hanka mardulak luzatuta



"Eskerrak, naturak askotan bere edertasun sinple eta soilenaz, gauzak errazteko gaitasuna duen".

ageri zen. Amarena aldiz alboan, arinxeago, baina behe-rantz abiatu aurretik indarrak berpizten suma zitekeen. Biak betaurrekoekin eta alderik alderako irribarre ahaztezin batzuekin. Gustura egingo nuke jauzi une horretara, baina tira, askotan

"AIPATUTAKO ARGAZKI HORRETAN, ANDATZAKO EGURREZKO ATERPEAREN PAREAN AGERI DIRA ETXEKO BI AMONAK"

hutsuneak ere bete dezake bihotza goxotasunez.

Haien falta sumatuagatik, bidaide ezin hobeekin igo izan naiz geroztik ere. Larunbatean bertan, irudi berezi horiek buruan bueltaka nituela, ilobaren algara eta marru artean igo ginen gustura. Eta eguraldiak heldu ziola eta ezin kexa, salda beroa hartu eta pintxo banarekin tripa lasai betetzeko aukera izan baikenuen patxada eta giro ederrean.

Beherantz abiatu ginenean ordea, familiari argazki batzuk bidali eta zertxobait berandutuko ginela abisatzen ari ginela, amaren eguna ere bazela oroitu ginen. Bost laguneko taldean, 4 ama batzen genituen guztira. Bakoitza, lotsa moduko bategen harrapatu zuen, bizitza oso batean sentituko dugun eskertza hori, modu berezi batean nola ospatu edo balioan jarri ote daitekeen pentsatzen hasi denaren zamaz.

Eskerrak, naturak askotan bere edertasun sinple eta soilenaz, gauzak errazteko gaitasuna duen. Izan ere, gure barruko haurrek, bide ertzetako basa-loreei erreparatu eta sorta pare bat prestatu zituzten. Bakoitzaren izaera eta izateko formak errespetatuz. Zilbor-hesteez elkarri lotu eta askatu ginenean bezalaxe. Elkar balioan jarriz eta zintzoki maitatzeko gai.

Helduentzako tertulia filosofikoa

Galdera bat abiapuntutzat hartuta, hausnarketarako, filosofatzeko gune aserako tartea eskainiko dute beste behin, tarteka halako hitzorduak antolatzen dituzten Oinherri taldeak eta Jakinmin elkarteak. Datorren saioa, maiatzaren 17an izango da, 18:30-20:00 artean Potxoe-nean. 15 lagunentzako lekua egongo da. Izena aurrez eman ahalko da usurbilkultura.eus plataforman.

Sendabelarrei buruzko saio bat

Batetik, Txokoaldeko Txokoargi kultur elkartearen eskutik, "sendabelarrei eza-gutu eta bildu" maiatzaren 18an, 10:00-12:00 artean, aipatu elkartearen egoitzatik abiatuta eta Leire Lazkanok gidatuta. Saioan 12 lagunentzako tokia egongo dela ohar-tarazi dute.

Izena aurrez eman beharko da 619 591 849 telefono zenbakira deituta (17:00-19:00 artean deitu). Prezioa: 10 euro.

Zuzenketa

Santuenea auzo elkarteak maiatzaren 18rako sendabelarrei buruzko tailerra antolatua zuela iragarri dugu egunotan. Baina ez da egingo. Akats bat tarteko iragarri da ekitaldi hori, bai Udalarren kultur agendan baita hedabide honetan bertan ere. Santuenea auzo elkarteak ordea ez du sendabelarrei buruzko tailerrik antolatu maiatzaren 18rako.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
PLATER KOMBINATUAK · BOKATAK · PINTXOAK
TABERNA
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
PATXI LAITEXEA
· bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361

Protesta Zubietako erraustegi atarira

Errausketaren Aurkako Mugimenduak, Donostia Bizirik, Eguzki eta Ekologistak Martxan elkarteek atxikimenduekin, "Zubietako erraustegiaren aurrean gure protesta azaltzera" deitu diete gipuzkoarrei datorren maiatzaren 18an.

Hara joateko martxa deitu dute goizeko 11:00etan Lasarte-Oriako Okendo plazatik abiatuko dena, "agintariei exijitzeko geldi dezatela erraustegia, ez dezatela gehiago hondakinik erre, ez Zubietan, ez Añorgan, ez Bergaran eta ez inon".

Mobilizazio honen deitzailen esanetan, aurreikuspenak bete dira. "Zubietako erraustegiaz, artean egitasmoa zenean adituak eta herri mugimenduak iragarri genuena, orain jada egunero gertatzen ari da. Tamalez, erraustegiak ez du konpondu hondakinaren arazoa eta, aldiz, Zubietan eta inguruetan eguneroko ogia da hondakinaren errekuntzak eragiten duen kutsadura". Horrez gain, "bai erraustegiaren kudeatzaileak eta bai Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak, informazioak ezkututzen dizkigute herritarroi erraustegiak

etengabe sortzen dituen arazo larriak (matxurak, funtzionamendu akatsak, Arkaitzerrekaren erretzea, suteak...) eta gero eta urrutiagora zabaltzen dituzte sortutako kutsatzaileak, Nafarroako Artaxoara legez kontra hondakinak eramatean erakutsi duten moduan".

Horren guztiaren aurrean, ordea, bestelako aukerarik badela gogorarazten dute. "Hondakinak kudeatzeko badaude errausketa baino sistema hobea, garbiago eta merkeagoak, eta Gipuzkoan bertan martxan dauzkagu hainbat herritan. Alferrrikako erraustegi hau gelditu beharra daukagu. Baina martxan dagoen bitartean, erraustegiaren arduradunen lehentasuna izan behar du bermatzea bertatik ez dela zabaltzen ez dioxinarik, ez PCBrik, ez PFASik, ez metal astunak eta ez bestelako kutsatzaileak".



"Erraustegiak ez du konpondu hondakinaren arazoa eta, aldiz, Zubietan eta inguruetan eguneroko ogia da hondakinaren errekuntzak eragiten duen kutsadura".

Astearte honetan egitekoa zuten deitzaileak, ekimen honi lotutako agerraldia. Xehetasun gehiago, hurrengo astekarian.

Batzar Nagusietan hizpide

Ostegun honetan, maiatzaren 9an bilduko da berriz Gipuzkoako Batzar Nagusietako Jasangarritasun Batzordea 9:30etan. Erraustegiaren eragina izango dute aztergai. Batetik, EHBilduk duen ordezkari politikoen taldeak agerraldi eskaera bat aurkeztuko du, "Holandako Toxico Watch Fundazioko ordezkarien agerraldia antola dezan". Gogoan izan, fundazio honetako kideak ari direla neurtzen erraustegiaren eragina ingurunean 2019. urteaz geroztik. Bost urteotako azterlanari

buruzko argibideak ematera etorriko dira aipatu fundazio-ko bi ordezkari maiatzaren 27an 18:00etan Sutegira.

Osteguneko Batzar Nagusietako bilkuran, bestalde, Jasangarritasun Departamentuko buru Jose Ignacio Asensiok agerraldia egingo du "Biodonostiako Ingurumen Epidemiologiari eta Haurren Garapenari buruzko Ikerketa Taldeko zuzendariarekin batera, Biodonostiak egingo dako azterlan honen emaitza nagusiak ezagutzera emateko: Epidemiologian espezializatutako zerbitzuak Gipuzkoako Ingurumen Gunearen funtzionamenduaren lehen lau urteetan". Saioa zuzenean ikusi ahalko da, bngipuzkoa.eus ataritik.

Taldetxo eder bat, egungo antolakuntzari erreleboa emateko gogoz

USURBILGO SAGARDO EGUNAREN LAGUNAK

Azken komunikatuak bere fruituak eman dituela esateko idazten dizuegu. Pozez esan dezakegu,

NOAUA!k gure idatzia argitaratu eta bi egunetara, usurbildar gazte batzuk gurekin harremanetan jarri zirela. Taldetxo eder bat osatu dute egungo antolakuntzari erreleboa emateko gogoz.

Bilera pare bat egin ditugu jada elkarrekin, asmoa aurtengo urtean hasi, datorren urtean bi

taldeek elkarlanean pasa eta erreleboa ahal eta ondoen ematea da, trantsizioarekin festa eder honetan ezer falta ez dadin.

Eskerrak eman besterik ez daukagu talde berri honi. Oso pozik gaude aurpegi berriak, ilusioz eta gogoz beteak gure artean ikusteaz.

Egun haundia iristear da, badauzkagu Sagardo Eguneko egitaraua eta 41 sagardo postu lotuta, erreleboa urte askotarako ere etorri dela espero dugu. Orain, zuek bertaratu eta egun eder bat elkarrekin pasatzeko prest izatea besterik ez zaigu falta.

Laster ikusiko dugu elkar. Eskerrik asko!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). NOAUAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Bordaberri 3, behea 20170 Usurbil / erredakzioa@noaua.eus



Aitor Zabaleta eta Arantzazu Aranburu, Txirikordako bizilagunetako bi.

"Ikuspegi aldaketa bat dakarren proiektua da Txirikorda"

ARANTZAZU ARANBURU ETA AITOR ZABALETA TXIRIKORDAKO BIZILAGUNAK

Bertan bizi dira dagoeneko eta atea herriari irekitzera doaz. Ostiral honetan, maiatzaren 10ean, 18:00etan Txirikordaren herri inaugurazioa antolatu dute bizilagunek eta Udalak.

Arantzazu Aranbururekin eta Aitor Zabaletarekin bildu gara, haien bizileku berrian. Aranburuk astea egin du jada, Zabaletak pare bat hilabeteko egonaldia. Elkarrizketa hasi orduko, leihotik bizikideak agurtzen ari dira, irribarre konplizeak nabari zaizkie. Denek Udalak sustaturiko Txirikorda izango dute aterpe aurrerantzean. Ez da izango ordea, ohiko norbere bizitokia. Bi belaunaldi elkarbiziko dira bertan alokairu sozialean, 18-30 urte arteko nahiz 65 urtetik gorako herrikideak. 16 etxebizitza ditu eraikinak, baina elkarrizketatuek NOAUA!ri nabarmendu dioten moduan, "etxe bakarra" da, belaunaldiarteko bizileku komunitarioa.

Nork bere bizitokia du baina era berean, benetako bizikidetza sustatzeko espazio partekatu bat baino gehiago ditu; egongela eta terraza komunitarioak edota asanbladak, otorduak, ekimenak batera egiteko aukera eskainiko dieten elkargune modukoa sarreran. Txirikordak, gainera, badu herriari irekia egongo

ARANTZAZU ARANBURU: "ETXE BAKARRA DA, BELAUNALDIARTEKO BIZILEKU KOMUNITARIOA"

den erabilera anitzeko areto bat ere.

Espazio hauek guztiak, ostiral honetan bertan, maiatzaren 10ean ezagutzeko aukera izango duzue, arratsaldeko 18:00etan hasita iragarri duten herri inaugurazioan. Eraikina, proiektua bera, bizilagunak nortzuk izango diren jakin nahi izanez gero, bisita gida-

AITOR ZABALETA: "ILUSIO HANDIZ AZALDUKO DIZUEGU DENA. ANIMATU HERRI INAUGURAZIORA!"

tua egingo da, etxeko txikiendak jolasak iragarri dituzte eta Fanfarrikant talde berria zuzenean entzuteko parada izango da. Guztia, jan-edan eta ospakizun giroan. Elkarrizketatu ditugun bizilagunen gonbita segidan. "Etorri, ateak zabalik ditugu. Pozik izango gineteke, jendea ahalik eta gehien bilduta, hemen ikusiko bagenu", adierazi du Aranburuk. Ildo beretik mintzatu da baita Zabaleta. "Bisita gidatu bat egongo da zuek ikusteko nola dagoen etxea barrutik antolatuta. Ilusio handiz azalduko dizuegu dena. Animatu!". Herrira zabalik izan nahi dute elkargune hau, baita hurbilen duten auzune berrira ere. Izan ere Ugartondok "ez du bizitzarik oraingoz. Etxe hau izan daiteke auzo bizitzari ekarpena egingo dion gunea".

Urtebeteko bidea

Ekin berri diote elkarbizitzari Txirikordako kideek, baina ez dute orain elkar ezagutu. Bistaz edota lehendik ere harreman du arren, azken urte honetan ibilbide bat partekatu osatu dute; hutsetik, komunitate berri bat eraikitzen joan dira. "Dinamizatzaileak izan ditugu horretan lagundu ditugunak. Horri esker baita ere prozesu eder bat eman dugu, oso ona", Aranbururen esanetan. Jakintzat emandakoak zalantzan jartzeraino. "Segurutzat jotzen ditugun gauza horietaz ere hitz egin dugu: elkarbizitza nolako izango den, arduren banaketa, tratatu onen inguruko saiok izan ditugu...". Baliagarria izan zaie prestakuntza fase hau. "Bakoitzak bere onena eman ahal izateko erritmoa pausatu dugu eta horrek bakoitzaren gaitasunak zeintzuk diren azalertzeko lagundu du", Zabaletak nabarmendu duenez. Ostiraleko inaugurazio ekitaldiaren antolaketa bera jarri du horren adibide gisa. Bakoitzak dakien horretatik egin du bere ekarpena. Horixe izango da aurrerantzean elkarrekin egingo

→ duten bidearen gakoetako bat.

Bizitza komunitarioan murgiltzen

Prozesu horretan, jada eman dute pauso garrantzitsuetako bat. Orain arte bizileku izan dutena utzi eta Txirikordara etortzea. Etxe aldaketa nola bideratu duten galdetu diegu. "Aukera aparta da hau niretzat", azaldu digu Aitorrek. Izan ere, Txirikordak "konfort egoeratik atera eta harreman eremua zabaltzea ahalbidetzen du, pertsona ezberdinekin harremanak eta hori aberasgarria da denontzat".

Arantzazuk azaldu digunez, "zorte handizat dut aukera hau eduki izana. Ni berez nahiko bakartia naiz, bakardadea gustuko dut baina harreman-du eta jendartean egotea ere atsegin zait. Bi moduok oso ondo uztartzen dira hemen. Gainera, lehengo etxea handiegi gertatzen zitzaidan, hau berriz neurrikoa dut, argitasun izugarrikoa. Seme-alabengandik gertu naiz. Oso gustura nago", adierazi digu Aranburuk. Proiektu honen berezitasunetako bat goraiatu du; belaunaldiartekotasunaren balioa. "Gazteok ematen diguten bizipoza, sasoia, animu eta alaitasuna izugarria da", Aranbururen esanetan.

Agokitze fasea bizi dute, aldaketa nabaria baita. "Bizimodu desberdina da" Txirikordakoa, Arantzazuren esanetan eta "horrek ekarritako erronei aurre egin behar diegu. Gure artean bildu, hitz egin eta erabakiak hartu beharok ditugu". Aitorrek aurreikusi duenez, "orain hasiko gara deskubritzen benetan bizimodu komunitarioak duen potentzialtasuna".

"Ikuspegi aldaketa bat dakarren proiektua da"

Txirikordara bizitzera joan nahi izanez gero, zer izan behar genukeen argi galdetu diegu. "Irekitasunean bizitzea, hori da lehenengo baldintza, zure



Aitor Zabaleta eta Arantzazu Aranburu, Txirikorda atarian.

bizitza besteekin partekatze-ko borondatea eta nahia izatea", adierazi digu Arantzazuk. Ildo beretik, nork bere bizileku propioa eta eremu intimo hori izanda ere, "zure bizitza jendartean eraikitzea", nabarmendu du Zabaletak. Horregatik, argi diote, "ikuspegi aldaketa bat dakarren proiektua da" Txirikordarena. Ohiko norbanakoen bizilekuekin alderatuta, beharrezko "espazio pertsonalaren horma hori hor dago, baina isolatzen zaituena eraitsi egiten da hemen". Horretan eragin nabarmena duena, bizilagunok osatua duten asanblada da, "benetan garrantzitsua komunitatea

"NORBERE ESPAZIOAREN HORMA EZ, BAINA ISOLATZEN DUENA ERAISTEN DA HEMEN"

eraikitze". Ez da irudika dezakegun ohiko bizilagunen komunitatea. "Asanblada honen ikuspuntua eraikitzailea da. Nola eraikiko dugu bizitza komunitatean? Elkarri, herriari zer aportatu diezaiokegu? Hori arakatzean dago gakoa", Zabaletaren esanetan. Izan ere, "gutako bakoitzak elkarri asko aportatzeko dugu eta komunitate horrek hori ahalbidetzen du". Elkarrekin bizitzeaz gain, astero biltzen dira, "elkarri neurria hartzen ari garela esango nuke", nabarmendu du Aitorrek. "Jendearen inplikazioa handia da, onena emateko borondatea du". Dagoeneko hainbat ba-

"APORTATZEKO ASKO DUGU ETA KOMUNITATEAK HORI AHALBIDETZEN DU"

tzorde osatu dituzte; komunikazioaz arduratuko den talde bat dute, Udalarekin harremanak arduratuko den beste bat, inaugurazioa prestatzeaz arduratu direnak... "Orain arte elkar ezagutze fase baten egon ostean, lan komunitarioari ekin diogu", gaineratu dio NOAA!ri.

Gizarteko beharren ispilu

Txirikorda "gizarte behar bat asetzerako dator" adierazi digu Zabaletak. Baina hitz egiten joan ahala, behar bat baino gehiago zerrendatu dituzte, egun aurre egiteko ditugun hainbat erroka. Lehenbizikoak, gazteek etxebizitza bat eskuratzeko duten ezintasunari nahiz adinekoren bakardade ez hautaturari aurre egitea. Baina horrez gain, geroz eta gizarte indibidualizatuago honetan, komunitatean bizitzearen onura eta garrantzia. "Ez gara jabetzen zenbateraino bizi garen isolatuak, elkar laguntzeko zenbat zailtasun ditugun. Aldaketa beharrezkoa da" Zabaletaren hitzetan, bai antolaketari edota harremanak moduari dagokionean. "Hau dena askoz modu osasuntsuago batean antolatu behar dugu. Beste harremanak espazioak behar ditugu, bestelako babes sareak behar ditugu". Aranburuk ere argi adierazi du, "gaurko errealitateari erantzun behar zaio, etxebizitzak egiterakoan berdin". Hortxe, beste behar bat, etxebizitzarena. Etorkizuneko Txirikorda bezalako proiektu asko beharko direla adierazi digute, "alokairu sozialekoak. Etxebizitza oinarriko eskubide bat da, baina gaur egun sistemak ez du hori bermatzen", Zabaletak gogorarazi duenez. Horrez gain, "zaintza beste modu batean ulertzea eta parte hartze soziala sustatzea" aipatu dizkigute baita; kasu honetan, Txirikordak "herriari ekarpena egitea, herri bizitza bultzatzea". Erronka hauen bueltan, ekin diote bizikidetzaren partekatuari.



Apirilaren 25ean egin zuten osoko ohiko bilkura. Ordenantza fiskaletan zenbait aldaketa txertatzea erabaki zuten.

Aldaketak ordenantza fiskaletan

Haur Eskolan emandako aldaketak aurtengo ordenantza fiskaletan islatzeko erabakia hartu zuen udalbatzak iragan apirilaren 25ean egindako osoko bilkuran. Unea, aldaketa gehiago txertatzeko baliatu zuten.

Bitan bildu zen udalbatza apirilaren 11n egin zuten. Lehengoan, apirilaren 11n egin zuten. Ezohiko izaeradun saio hartan, Haur Eskolari lotutako bi erabaki hartu zituen udalbatzak; batetik, bertako erabiltzaileen betebeharren eta eskubideen araudia onartu zuten. Horren aurretik, haur eskolaren zerbitzu kontratua hiru urtez esleitzeko prozedura abiatzea ere erabaki zuten udal ordezkariak.

Araudiari dagokionean, bestelako berrikuntzen artean, kuotak nabarmen murriztea aurreikusten du. Garai batean 300 euro ordaintzetik, etorkizunean, Haur Eskolaren egun osoko erabilera egingo duten erabiltzaileek 60 euroko kuota ordaintzera igaroko dira, 40 eurokoa zerbitzu hau egun

erdiz baliatu asmo dutenek. Kuotetan aldaketa hau bideratzeko, saio hartan iragarri zuten, hilaren 25eko osoko bilkuran aurtengorako onartuak dituzten ordenantza fiskaletan Haur Eskolari lotutako kuoten aldaketa hau txertatzeko zutela.

Ikastaroak eta hobariak

Halaxe egin zuten, beraz, duela bi asteko, apirilaren 25eko osoko bilkuran. Aipatu berrikuntza hau txertatu zuten aurtengo ordenantza fiskaletan. Halere, erabaki hau aldaketa gehiago txertatzeko ere baliatu nahi izan zuten. Esaterako, haur eskolako erreserba kuota ere 30 eurotan finkatzea erabaki zuten egun osorako; 20 eurotan lanaldi erdirako. Bestetik, kirol zerbitzuen esleipen berria presta-

tzen ari da Udala. Lizitazio berriak langileen soldatak eguneratzea eta eguerdian kiroldegia irekitzen segitzea kontuan hartzea ekarriko du. Ondorioz, ikastaroen prezioak berrikusi eta garestitu beharra ere bai. Asmoa, igoera progresiboa izatea da, lau urteetan %25 garestitzea ikastaroen prezioak, igoera kolpekoa ez izateko. Horrekin batera, ikastaroen arteko oreka sustatu nahi dute, ikastaroak batera-

HOBARIEN ERABILERA EGOKI ETA DESEGOKIA ZEHAZTUKO DUTE ORDENANTZA FISKALOTAN

tu, erabiltzaileek horien hautaketa egiterakoan aukera berdintasuna sustatze aldera, egoera ekonomikoa edozein izanda ere. Behar duenak norberaren errentaren arabera hobarien eskaintza zabala eskura duela gogorarazi du Udalak, beste behin.

Hobariak

Aldaketa gehiago ordenantza fiskaletan. NOAUA! K.E.-k izen-ematea itxi berri duen Udajolaseko kuotetan ere aldatetako bat txertatzeko dute ordenantza fiskaletan. Izan ere, harrera familietara datozen haurren kasuan, kuota doakoa izango da. Azkenik, hobarien sistema ere egokitu egingo du Udalak. Zehazki araudi horren bi artikulua aldatzea erabaki zuen udalbatzak duela bi osteguneko osoko bilkuran. Batetik, lanbide arteko gutxieneko soldatan izan den igoera islatua utziko dute. Honenbestez, hobarien taula eguneratuko du Udalak.

Erabilera desegokia arautua

Azkenik, hobarien erabilera egoki eta desegokiak zehaztuko dituzte baita ordenantza fiskalotan. Aurrerantzean, hobarien erabilera desegokiagatik, hauen onuradun izateko eskubidea galdu ahalko da, soilik erabilera desegokia egin den hobarien kasuan. Izan ere, Udala zenbait onuradunek hobarien erabilera desegokia egin dutela ohartu da. Beste zenbait onuradunen kasuan, bizi-baldintzak aldatu zaizkie eta ez diote horren berri Udalari jakinarazi.

Aldaketok gehiengo osoz onartu zituzten EHBilduren eta PSEren babesarekin. EAJ abstenitu zen. Udal gobernu taldetik proposaturiko aldaketan alde agertu ziren jeltzaileak, baina Haur Eskolari dagokionean beste eredu bat defendatzen dutela adierazi zuten udal taldeko bozeramaile Xabier Otxoak. Ondorioz, abstenitu egingo zirela iragarri zuten.

Memoria, datorren Jakin Jardunaldiko hizpidea

UEU-ren 52. udako ikastaroen baitako "Gatazkaren memoria, memoriaren gatazka" Jakin Jardunaldia antolatu dute.

Euskal gatazkaren inguruan egiten den memoriagintzaz kritikoki hausnartu; memoriari lotutako zenbait ekimen eta ikerketa ezagutu; eta gazteek gatazka nola jaso duten eta memoriagintzara nola lotu diren ikusteko antolatu dute Jakin Jardunaldia ekainaren 20an eta 21ean Artzabalena, UEU-k, Jakinek eta Usurbilgo Udalak.

Hainbat aditu eta aritu bilduko dituzte bi egunotako saioetan; tartean, Usurbil 1936 elkarteak kideak. Oroimenari lotutako herri ibilaldia ere iragarri dute. Zabalik da matrikulazio epea.

"Gatazkaren memoria, memoriaren gatazka"

• Zehaztasunak: "Gatazka baten memoria egiteko saiakerak memoriaren gatazka ekarri ohi dute. Presentzia desberdina hartzen duten ahots ugari nahasten dira botere-harremenen dinamikak erabat zeharkatutako memoriagintza prozesuan. Horregatik, euskal gatazkaren testuingurura etorrita, auzi ugari ekartzen ditu memoriaren gaiak: Zer ahots ari dira memoria egiten? Zeintzuk ez dira ari? Nola eman eta kentzen zaie zilegitasuna ahots horiei? Nolakoa da museoetan, oroiguneetan, fikzioan, ikerketetan jasotzen ari garen memoria? Nolakoa me-

moriagintza hori? Noraino luzatzen da euskal gatazkaren memoria? Eta belaunaldi gazteenek, zer jaso eta zer sortzen dute gatazkaren inguruan?"

- Oharra: plaza mugatuak.
- Informazioa, izen-ematea: ueu.eus

Egitaraua:

Ekainak 20, osteguna

08:45-09:00 Harrera eta dokumentazio banaketa.

09:00-09:30 Ongietorria eta jardunaldiaren aurkezpena: -Aitor Bengoetxea Alkorta, UEUko zuzendaria.

-Agurtzane Solaberrieta Mesa, Usurbilgo alkatea.

-Lorea Agirre Dorronsoro, Jakineko zuzendaria.

09:30-10:30 "Eziñ-esanaren miña; miñen ezin-esana". Gatazka nazionalaren teorizazioaren inguruko gogoeta bat. Cira Crespo, historialaria.

10:30-11:15 "Memoria, boterea, gatazka: hainbat hari-mutur". Iñaki Sagardoi Leuza, NUPeko irakaslea

11:15-11:45 Atsedenaldia.

11:45-12:30 "Ez gaitzazue ezabatu. Ezker Abertzaleko emakumeen militantzia eta errepresoaren memoria". Olatz Dañobeitia, Antropologian doktorea.

12:30-13:15 "Batzuk, bestiak eta piztiak. Euskal gatazkaren irakurketa bitarra gainditzeko proposamen feminista bat".



Gizarte mugimenduei buruzko iazko Jakin Jardunaldiko une bat.

13:15-15:15 Bazkaltzeko tartea.

15:15-16:00 "Isilpeko historia berreskuratuz. 1936-1945 artean erreprezio frankista jasan zuten emakumeak. Gipuzkoako kasua". Ione Zuloaga, historialaria, Aranzadi Zientzia Elkarteak ikertzailea.

16:00-16:30 "Usurbil 1936, ezkutatua argitara ematen". Arantxa Manterola eta Xuban Zubiria, Usurbil 1936 elkarteak kideak.

16:30-17:30 Usurbil 1936: ibilaldi gidatua.

Ekainak 21, ostirala

09:30-10:15 "Besteen lurraldea da iragana. Gazteak, gatazka

"HAINBAT ADITU BATUKO DIRA JARDUNALDIOTAN, TARTEAN, USURBIL 1936 ELKARTEKOAK"

eta memoria trantsitatzeko aukerak". Samara Velte, Politika eta Kulturaren doktorea (UPV/EHU), eta EHUko irakaslea.

10:15-10:45 "Txikitikasunetik memoria eraikitzen: lehen pausuak Antzuolan". Onintza Legorburu eta Ane Alberdi, "Memoria josten: gatazka armatua Antzuolan 1958-2011" liburuaren egileak.

10:45-11:15 "Martxoak 3 Memoriagunea: Gasteizko Herri M3moriaren erronka". Julen Diaz de Argote, Martxoaren 3ko Memoriagunerako proiektuen arduraduna.

11:15-11:45 "Joan da negua? Euskal gatazka fikzioa eramateko narratiba berriak". Mikel Ibaguren eta Ekain Albite, *Negu Hurbilak* filmaren zuzendariak.

11:45-12:30 Atsedenaldia.

12:30-14:30 "Negu Hurbilak" filmaren proiektzioa eta solasaldia.

Antolatzaileak: UEU, Jakin eta Usurbilgo Udala.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

943 361182
EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8, USURBIL
943 37 00 08

Otar-Goxo
Elizagaia
Zubiarrena 2, 943 36 55 81



Beñat Gaztelumendik eta Ane Labakak girotuko dute Baserritarren Eguna.

Baserritarren Eguna

San Ixidro eguneko ospakizuna iragarri dute hurrengo asteazkenarako. Goizpasa borobila ekitaldion bueltan:

Maiatzak 15, asteazkena

- 10:30 Trikitilariak.
 - 11:00 Hamaiketako herrikoia.
 - 12:00 Herri kirolak bertsolariekin eta eskertza ekitaldia.
- Aizkolariak: Unai Etxeberria (Ezkio) eta Kimotz (Ereñotzu).
- Harrijasotzaileak: Gorka Etxeberria (Ortzaka) eta Garazi Ansa (Oiartzun).

- Bertsolariak: Beñat Gaztelumendi eta Ane Labaka.

- Eskertza-ekitaldia: Euxebio Txapartegiri eta Jose Ramon Sarasolari.
- 14:30 Bertso-bazkaria Artzabalén (bazkari-txartelak Artzabalén eta Alkartasun salgai).

Antolatzailea: Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba.
Laguntzailea: Usurbilgo Udala.



Belmonte kaleko obretako isurien ondorioz, Aranerreka txuri zetorren.

Isuria Aranerrekan

Anerreka ingurumen elkarteak iragan aste hasieran Aranerreka txurizegoela ohartarazi zuen, isuria izan zela. Usurbilgo Udalak jakinarazi duenez, "Belmonte kaleko zoladura konpontzen ari dira, eta ondorioak izan ditu Aranerrekan. Erreka zuri agertu berri da, eta isuriaren arrazoia, hain zuzen ere, Belmonte kaleko obretan dago: baldosak moztean sortutako hautsa euri uren estolderiatik botata iritsi da Aranerrekara". Egoera honen aurrean iragarri duenez, "aka-

tsaz jabetuta, berriz ez gertatzeko neurriak hartuko ditu udalak: konpontze lanetan sortzen diren isuriak ur zikinetara bideratuko dira".

Belmonte kalea itxita ibilgailuentzat

Kalezarko Belmonte kalea itxita dago apirilaren 22az geroztik zazpi bat astez, zoruaren konponketa lanetarako. Horren ostean, auzotarren pasabide izateko kontrol sistema ezartzekoak dira.

"Goazen kalera", hurrengo hitzorduak

Asteartero izaten da Usurbilgo herri eta auzoetan paseoak egiteko aukera. Datorren astean, aldiz, egunbete beranduago izango da, maiatzaren 15ean. Egun horretan, San Ixidro eguna ospatuko da, goiz partean. Astearteroko ibilaldia asteazkenara atzeratuko dute. 10:00etan hasita ordubete pasatxoko paseoa eta segidan, hamaiketako helmugan, San Ixidro eguneko ospakizunetan.

Ez dago izena eman beharrik

Maiatzaren 21etik aurrera, asteartetara itzuliko da berriz, "Goazen kalera" dinamika. Gogoan izan, herritar orok parte har dezake ekimen honetan, ez dago aurrez izena eman beharrik.

Zenbait udal dirulaguntzen ebazpenak

Gizarte zerbitzuen egitasmoak bideratzeko lerroari dagokionez, 19 eskabide izan ziren, guztira 12.000 euroko laguntza bideratuko du Udalak.

Gogoan izan, bestalde, beste zenbait lerroetarako eskabideak aurkezteko epeak zabalik segitzen du.

Hasiz Hazi beka nahiz merkataritza lokal hutsak biziberritzeko dirulaguntzak

Kabienen urtebeteko egonaldia egiteko Hasiz Hazi beka deialdirako nahiz merkataritza lokal hutsetan jarduera ekonomiko berriak abiarazteko dirulaguntza deialdirako, baita norgehiagoka erregimenekoak ez diren kirol arloko egitasmoetarako ere.

"Smart Farming" proiektuaren aurkezpena

Zubigune Fundazioaren eta Asmoz Fundazioaren artean, Smart Farming "Optimizatua eta hobetu zure produktioa" proiektua garatzen ari dira. Honek helburu du Gipuzkoako lehen sektorean erabiltzen den uraren eragin-kortasuna hobetzea, baita gaiaren inguruko sentsibilizazioa bultzatzea ere.

Ekimenaren nondik norakoak azaltzeko eta parte-hartzaileak erakartzeko helburuarekin antolatu da aurkezpena.

Potxoenean

Maiatzaren 9an, 18:00-19:00 artean Potxoenean, Zubigune Fundazioaren eta Asmoz Fundazioaren eskutik.

Jaietako txupinazorako hautagai bila

Festei hasiera nor edo nortzuk ematea nahi duzen proposatzeko aukera izango duzue maiatzaren 24ra arte. Emailaz helarazi dezakezue zuen ekarpena, kultura@usurbil.eus helbidera. Bestela, dagoeneko udaletxean, liburutegian, kiroldegian eta Potxoenean jarri dituzte kutxak.

Egitarau diseinu lehiaketa

Festen berri emango digun egitaraua diseinatzeko txapelketa ere abian da. Lanak udal erregistroan aurkeztu beharko dira, maiatzaren 24a baino lehen. 500 euroko saria eskuratuko du irabazleak. Oinarrien berri bideotatik jaso dezakezue: usurbilkultura.eus / 943 371 999.

Zubietako UdaFest jaialdia hastear da



Zubietako Eskolako Guraso Elkarteak antolatzen du UdaFest zikloa.

Zubietako eskolako guraso elkartearen eskutik, ikasturte amaierara begirako azken txanpa ospakizunerako tartean bilakatuko dute UdaFest zikloan iragarritako ekitaldiokin:

Maiatzak 14, asteartea

- 17:00-19:00 Esku eta artelaren eguna.

Maiatzak 15, asteazkena

- 17:00-19:00 Herri kirolginkana.

Maiatzak 23, osteguna

- 17:00-19:00 Puzgarriak.

Maiatzak 24, ostirala

- 17:00 Zirku tailerra.
- 18:00 Tortilla lehiaketa.
- 21:00 "Zubieta talent" saioa.

41. Sagardo Eguneko egitaraua



Sagardoa dastatzeko aukeraz gain, pintxo aukera zabala izan ohi da.

Usurbildarren urteko festa egun nagusia ate joka dugu. Maiatzaren 19an ospatuko dugu 41. Sagardo Eguna. Honatx antolatzaileek iragarri duten egitaraua:

Maiatzak 19, igandea

- 11:00 Botatzaileen argazkia.
- 11:30 Irekiera ekitaldia.

Baserriko zein sagardotegi ezberdinetako sagardoa dastatzeko aukera. Honetaz gain, pintxo aukera zabala.

- 15:00 Botatzaileen bazkaria Udarregi ikastolan.
- 17:00-20:00 "Matraka" Elektrotzaranga kalejiran.
- Antolatzailea: Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak.

BAZKIDEEN TXOKOA

noaua! euskararen aterpe

GIPUZKOA BERTSOTAN

2 SARRERA BIKOITZ

zozketatuko ditugu

NOAUA!ko bazkideen artean

Bazkide egiten bazara, zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkarte@noaua.eus

Zientzia bizipen eta erronken plaza, Elhuyarren azokan

Elhuyarrek antolaturiko Gipuzkoa mailako zientzia azoka egin zuten maiatzaren 4an frontoian.

Zientzia plazaratu zuten, alor honetako erronkak proiektu bilakatu zituzten 12-18 urte arteko gaztetxoek bidez. Zientzia haiengana eta haien bizipenen bidez gugana hurbildu zuten ikasturtean zehar eginitako lanketekin. Maiatzaren 4an zientziaren erakusleihoa izan zen Usurbilgo frontoia, Elhuyarrek antolaturiko Gipuzkoa mailako azokaren bidez. Eskualde ezberdinetako hamaika ikastetxeek parte hartu zuten; Beasain, Orio, Zarautz, Hondarribia, Donostia, Lasarte-Oria, Urretxu-Zumarraga edota Hernanitik

etorritako gazteek. Haiekin ziren baita etxeakoak, Udarregi ikastolakoak. Dozena batetik gora proiektu aurkeztu zizkieten haien postuetara gerturaturiko bisitariak; hala nola, bluetooth bidezko autoa aurkeztu zuten, laguntza animaliak eta buru-eritasunak lotutako proiektua, sugandilak behatzekoa, intsektuen hotela, beso domotikoa... Udarregi ikastolako DBHko lau taldeek beste hainbeste proiektu aurkeztu zituzten azoka honetan: argazki kamera barruan gertatzen dena irudikaturiko "ganbera iluna", herriko hain-



Elhuyarreko eta Udaleko ordezkariak, azokako protagonistekin batera.

bat azpiegituretako energiari buruzko azterlana, burmuina eta hesteen arteko ardatza hizpide zuena edota Usurbilgo aire kalitatea aztergai zuen. Gazteok eta haien proiektuak elkar ezagutzeko plaza izan zen Usurbilgoa.

Gazteei STEAM bizipenak eskaintzea helburu duen azoka Usurbilgoa Gipuzkoa mailako ekimena izan zen. Nafa-

roan eta Lapurdin ere egin dituzte ekimenok. Euskal Herri mailakoa izango da azkena, maiatzaren 22tik 25era Bilbon egingo dutena.

Hau erakusleihoa izateaz gain, hainbat proiektu saritzen dituzte. Elhuyarrek sustatzen dituen azoka hauen helburua, gazteei STEAM bizipenak eskaintzea da, "komunitate osoaren inplikazioarekin".

ATEAK ZABALIK DITUZU USURBILEN JARDUERA BERRI BATI HASIERA EMATEKO!

DIRULAGUNTZAK

ALOKAIRURAKO
DIRULAGUNTZA
USURBILEN HUTSIK
DAUDEN LOKALETAN

ZURE PROIEKTUAREN
HASIERAKO GASTUEI
AURRE EGITEKO
DIRULAGUNTZA

Eskatzeko azken eguna: maiatzak 31

Informazio gehiago

943 37 19 51 / 688 884 314 /
747 441 745

enplegu@usurbil.eus
ekintzailletza@beterriburuntza.eus

usurbil
zabalik **Z**

zabalik.usurbil.eus





Gipuzkoako hamaika ikastetxeetan landutako proiektuak aurkeztu zituzten.



Eskualde ezberdinetako 12-18 urte arteko gaztetxoak bildu zituen azokak.



Elhuyar Azokako parte hartzaileen artean ziren Udarregi ikastolakoak.



DBHko ikasleek landutako lau proiektu aurkeztu zituen Udarregik.

 **KABIENE** Usurbilgo elkarlan gunea  **BETERRI BURUNTZA**

HASIZ HAZI diru laguntza ekintzaile eta autonomoentzat:

URTEBETEKO EGONALDIA **KABIENEN, DOAN**

Eskaerak aurkezteko bi epe:
1.epea: Maiatzak 31 arte 2.epea: Irailak 30 arte

INFORMAZIO GEHIAGORAKO: Usurbilgo Udala 943 37 19 51 enplegu@usurbil.eus
Kabiene elkarlan gunea 943 55 96 75 kabiene@kabiene.com
Beterri-Buruntza autoenplegu zerbitzua 688 884 314 eta 747 441 745 ekintzailletza@beterriburuntza.eus

ANDATZA EGUNA, IRUDITAN



Maiatzaren 5ean Andatza Egunera igotakoen talde argazki jendetsua.



Ibai-Ondo elkarteko kideak gogotik aritu ziren antolaketa lanetan.



Ibai-Ondokoen hamaiketako goxoa dastatu zuten Andatzara igotako bisitariek.



Azkenean, ateri eutsi zion. Ez zen aterpe beharrik izan Andatza Egunean.



Zirimararen familia planean igo ziren irudikoak Andatza Egunera.



Andatzara bidean, Urdaiagako plazatik abiatutako Zirimararen ekimeneak.



Andatza Eguneko irudi gehiago, noaua.eus atarian.



Naturarekin jolasean aritu ziren Zirimararen familia planeak.



Loita Amada galiziarren kontzertua Aginagan.



Vachoca tailerreko parte hartzaileak, pasa den asteleheneko saioan.

Galizia eta Usurbilgo musika entzungai

Lagunarteko kontzertu gau ederra ospatu zuten larunbatean Aginagako Eliza Zaharra Elkargunean Loita Amada galiziarrekin eta Rukula zein Zaparra usurbildarrekin. Etxekoek lan berrienak ("Traganarru" eta "Azalberritzen" izenekoak) aurkezteko baliatu zuten hitzordua.

Tailerra jatorri aniztako herrikideekin

Askotariko sorterrietako herrikideak batu zituzten astelehenean "Vachoca" izeneko tailerrak. Etxea gaitzat hartuta, sormenera eta bizi-esperientzien elkartrukera bideraturiko saioa egin zuten. Maiatzaren 24an berriz, 17:30-19:00 artean Potxoenean. Izen-ematea: ganbara.sormentailerra@gmail.com



Iñaki eta Olatz Salvador Sutegiko oholtzan.



Buztinarekin jolasean eta sortzen, Santueneko ludotekan.

Salvadortarrak Sutegin

Iñaki eta Olatz Salvador osaba iloben "familia artean" emanaldi hunkigarriak Sutegiko auditorioa erabat bete zuten, Jexux Artze zendu zenetik 21 urte bete ziren maiatzaren 3an. Jexuxen omenez osaturiko kultur elkarteak urrirako iragarria du Txalaparta Eguna.

Buztina, sormenerako lanabes

Izandako eskariak tarteko, bat ez, buztinarekin jolasean aritzeko bi saio antolatu dituzte azken ostiralotan Santuenean. Kontzentratuta, begirada mahaitik mugitu gabe eta eskuekin lanean gogotsu aurkitu genituen gaztetxoak bidelagun zituzten gurasoekin, iragan maiatzaren 3an.

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA


ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK

eskura
elikadura eta dietetika aholkularitza
DIABETESA, HIPERTENSIOA,
GIZENTASUNA, ELIKADURA
ETA KOLESTEROL ARAZOAK

688 843 696
Zubiaurrenea 1, 1c Usurbil



Patxi Iparragirreraren hanburgesa izan da epaileen oniritzia jaso duena.

Patxi Iparragirreraren hanburgesa, onena eta berritzaileena

Patxi Iparragirreraren Otar-Goxo harategia nagusitu da II. Euskal Herriko hanburgesa berritzaile onenaren lehiaketan.

Aurreko asteburuan Bertako Haragiaren Azoka ospatu zen Tolosan eta antolatzaileak pozik daude ekimenak izan duen harrerarekin. Euskal Herriko haragi mota ugariaren erakusleho izateaz gain, sektoreko ekoizle, harakin eta sukaldari ugari batu ziren. Lau egunez, formazioa, dastaketak,

salerosketa eta jai giroa uztartu zituzten.

Hanburgesa onenak, Gasteizkoak eta Usurbilgoak

Azokaren baitan, 2024ko Euskal Herriko hanburgesa berritzaile onena eta hanburgesa tradizionalik onenak eman zituzten ezagutzera, II. Euskal

Herriko Hanburgesa Onenaren Lehiaketan. Usurbilgo Patxi Iparragirreraren Otar-Goxo harategiak eta Gasteizko Beñat harategiak irabazi zituzten lehiaketetako bi txapelak, hurrenez hurren.

Parte hartzea handia izan zen. 54 hautagai aritu ziren lehian: 29 gipuzkoar, 11 arabar eta 14 bizkaitar.

"OTAR-GOXOKO HANBURGESEK FAMA ONA DUTE. EZ DA SARITZEN DUTEN LEHEN ALDIA"

Hanburgesa berritzaile onenaren kategorian, bigarren eta hirugarren postuan geratu ziren Tolosako Miren harategia eta Gasteizko Mari harategia, hurrenez hurren.

Hanburgesa tradizionalik onenaren kategorian bigarren eta hirugarren postuan sailkatu ziren ekoizleak hauek izan ziren: Gasteizko Santi harategia eta Ibarako Joxe Mari Barriola harategia, hurrenez hurren.

Aurreikuspenak beteta

Aitor Agirresarobe Murgi Tolosako Udaleko Merkataritza, Turismo eta Azoketako zinegotzia pozik zen, aurreikuspenak bete egin zirelako. "Bertako haragiaren ekoizpena jarri dugu erdigunean, inguruko ekoizleei balioa eman zaie eta gure haragiak gastronomikoki eskaintzen dituen aukerak ezagutzera emateko tartea izan da. Tolosaldea aniztasun horren erakusle da, eta aukera horietan sakontzeko ahaleaginean jarraituko dugu. Erantzunarekin ere pozik gaude, jendetza ibili baita".

Salmentatik harago, harremanak sustatzea zen helburu nagusietako bat, "eta horretan sakontzen lagundu dugulakoan gaude", zioen zinegotzi tolosarrak. "Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiet parte hartu duten ekoizle, harakin, sukaldari, musikari eta laguntzaileei". Adierazpenok Bertako Haragiaren Azokako azken egunean egin zituen.

Andatzako aztarnategi arkeologikoetan laguntzeko izen-ematea zabalik da

Andatzako bi gune hauetan egingo dituzte indusketak: Andatza II eta III-n, eta Irigainen. Aztarnategi arkeologikoetan lagundu nahi dutenek, orain dute horretarako garaia. Ekainaren 1era arte egongo da izen-emateko epea zabalik.

Udalak aditzera eman duenez, "Aranzadi Zientzia Elkarrekin udan garatzen dituen jarduerak nagusietako bat dira ikerketa arkeologikoak: azken urteetan, udalarekin hitzarmena sinatuta, Usurbilen ere urtero egingo dituzte, Andatza II eta III eta Irigain eremuetan".

Usurbilen ez ezik, hainbat herritan aritzen dira halako indusketak egingo, eta aurten ere eskaintzaren berri eman dute. Elkarteko langileekin ez ezik tokian tokiko boluntarioekin lan egingo dute, eta ireki dute dagoeneko izena emateko epea: interesa dutenek galdetegi bat bete behar dute, ekainaren 1a baino lehen. Izena emateko galdetegia helbide elektronikoko honetan aur-

kituko dute: <https://labur.eus/qn8l6>.

Azken urteetan egin bezala, Usurbilgo bi indusketak Manu Zeberio eta Izaro Quevedok zuzenduko dituzte.

Egunak zehaztu ez badituzte ere, Andatza II trikuharriko eta Andatza III zistako indusketak abuztuaren egingo dituzte, eta Irigaineko erromatar garaiko aztarnategiok, aldiz, irailean.



Touring-en aurkako partidaren 6-3ko emaitzarekin nagusitu ziren usurbildarrak.



Partida amaitu eta berehala lehertu zen festa giroa Haranen.

Usurbil FT-ko jubenilak pozarren, mailaz igo ondoren

Touring taldekoen aurka larunbat arratsaldean jokaturako partida irabazi zuten eta horrekin, baita mailaz igotzea lortu ere.

Usurbil Futbol Taldeko jubenilak mutilen taldeak larunbatean neurraketa erabakiorra jokatu zuten Haranen, Touring taldearen aurka.

Ez zen ohiko partida bat. Denboraldiaren azken txanpan, mailaz igo ahal izatea zuten jokoan. Errozkari gogotik heldu eta neurraketa 6-3

nagusitu ziren usurbildarrak. Lau jardunaldiren faltan, garaipen honi esker, irailatik aurrera, Ohorezko Mailan jokatu ahalko dute.

Partidaren amaieran gogotik ospatu zuten

Neurraketa jai giroan joan zen, animu eta babes mezu ugari plazaratu zituzten, Haraneko harmailak betetako zaletuek. Izan ere, hara joateko gonbita egina zuten klubetik aldeztu aurretik.

Partida amaitu eta berehala lehertu zen festa giroa, txalo eta bengala artean. Pozarren, kantuan eta elkar besarkatuz amaitu zuten neurraketa, baita ondoko taldeko argazkia aterata ere.

Patinete elektrikoak debekatuak garraio zerbitzuetan

Urtarrilaren 15az geroztik debekatua dago patinete eta monoziklo elektrikoak tren barruan sartzea. Debeku hau zabaltzea erabaki du Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak. Izan ere, maiatzaren 6az geroztik patinete elektrikoak ezin dira sartu ez

tren ezta autobus zerbitzuetan, "segurtasun arrazoiengatik".

Horrez gain, garraio zerbitzu publikoetara ezingo dira sartu umerik ez daramaten haur-kotxe edota aulkiak. Lurraldebusetik zehaztu dutenez, "reborn panpinekin edo antzekoekin egindako kotxe-

txoak/orgatxoak, edo animalliekin egindakoak" ez dituzte sartzen utziko ez tren nahiz autobus zerbitzuetan.

Arriskuak ekiditeko

Patinete eta monoziklo elektrikoek azken urteetan sortu dituzten "gorabehera larriak" ekiditeko sartu dira neurri hauek indarrean. Gogorazi dutenez, "gailuen bateriek eragin dituzte, eta kalte fisiko

eta material larriak eragin dituzte suteen eta deflagrazioen ondorioz".

Horren aurrean, "erabiltzaile guztien segurtasuna behar bezala bermatu behar dutela" diote erakundeek.

Salbuespenak

Debeku hauetatik salbu daude, mugikortasun urriko pertsonen ibilgailuak eta bizikleta elektrikoak.



Irati Arangurenek junior mailako Lea Artibai Challengea irabazi zuen apirilaren 14an. Ezkerretik hasita bigarrena da Irati. Garaipen honi esker Euskaldun Txapelketako sailkapen orokorreko lehen postura iritsi da. ANDOAINGO TXIRRINDULARI TALDEA

"Ziklo-krossean eta errepidean, bietan oso gustura aritzen naiz"

IRATI ARANGUREN JUNIOR TXIRRINDULARIA

Euskadi eta Espainiako txapelketetan onenen artean da. Beraz, etorkizun oparoa duela esan daiteke. Usurbilgo txirrindulari taldean eman zituen lehen urratsak baina taldea desagertu zenean Andoaingo taldean aurkitu zuen aurrera jarraitzeko modua.

Txirrindularitza oso gogorra da. Denbora eta energia asko eskatzen du. Astero, zenbatetan entrenatzen duzu, batatz beste?

Astean bost egunetan izaten ditugu entrenamenduak eta txapelketarekin, astean sei egunez aritzen naiz bizikletan. Normalean, bi ordu edo bi ordu eta erdiko saioak izaten dira. Lasterketa garaian, errepidean egiten ditugu entrenamenduak. Lasterketa baino egun bat lehenago eta beranduago lasaiago aritzen gara, serie txikiak egin ohi ditugu. Gainontzeko egunetan, gogorrago aritzen gara. Asteroko martxa hori izaten da, izan ere, astebururo izaten ditugu lasterketak.

Errepidean zein ziklo-krossean aritzen zara. Zein da erosoena egiten zaizuna?

Errepidea da gehien gustatzen zaidana, baina bietan aritzen naiz oso gustura. Urriari hasi eta urtarrilean amaitzen dira ziklo-kross lehiaketak, eta ondoren, errepideak hartzen du lekua otsailetik irailera bitarte.

Zu ari zaren mailan aritzeko, asko zaindu beharra al dago?

Ez dut inolako dietarik edo halakorik jarraitzen. Lasterketa aurretik karbohidrato eta proteinak hartzea garrantzitsua da eta horri erreparatzen diot, baina gainontzekoan ez dut ezer berezirik egiten. Ondo ja-

ten saiatzen naiz, baina plan konkreturik jarraitu gabe. Helburu konkretu bat lortzeko lasterketa bat buruan daukadanean gehiago zaintzen naiz horretarako, baina gainontzekoan edonork bezala jaten dut. Parranda egiteko garaian, lasterketak ditudanean ez naiz ia

"USURBILGO TXIRRINDULARI TALDEA DESAGERTU ZENEAN, ANDOAINGO TALDERA JOATEA ERABAKI NUEN"

ateratzen. Tarteka lasterketa izan ostean, larunbat gauean (lasterketa larunbatean izan bada) ateratzen naiz, baina txapelketa asko ditugun denboraldian lasai hartzen dut eta behin pasatzen denean ateratzen naiz.

Beste kirol jarduera batzuetan ere arituko zinen txikitan. Noiz egin zenuen txirrindularitzaren aldeko apustua? Noiz hasi zinen txirrindularitza serio hartzen?

Txikitan futbolekin eta eskubaloian ibiltzen nintzen, baina gerora atletismoan hastea erabaki nuen. Ondoren, atletismoa uztea erabaki eta futbolera itzuli nintzen. Infantilak amaitu arte jarraitu nuen futbolekin. Txirrindularitza aletinetako bigarren urtean heldu nion eta urte dezentetan bi kirolak uzartu nituen. Larunbatetan, normalean, goizetan futbol partidua izaten nuen eta arratsaldetan txirrindularitza lasterketa. Kadetea izatera iritsi nintzenean, gurasoek bi kirolak bat hautatzeko esan zidaten, biak gehiegi zirela eta. Txirrindularitza aukeratu nuen azkenean, asko kostata. Ahizpak ere gauza bera egiten zuen eta hautua egiterako garaian, futbolaren alde egin zuen hark. Infantil mailara iritsi arte, Usurbilgo txirrindularitza taldean aritu ginen, baina taldea desagertu egin zen. Hemen inguruan nesken talde oso gutxi daude, baina Andoainen bat bazela eta hara joatea erabaki nuen. Gustura sentitzen naiz hartutako erabakiarekin.

Zein da orain arte lortu duzun balentriarik handiena?

Errepidean Espainiako txapelketako kronoa daukat oso go-goan. Duela bi urte irabaztea lortu genuen, eta aurten ere aukerak bagenituela uste genuen. Normalean, joan eta itzuli bide beretik egiten da, eta joatean ez genuen inolako arazorik izan, baina bueltakoan biribildune batean nahastu egin ginen bidez eta atzera itzuli behar izan genuen. Zorionez,

→ denboratartehoriez galtzea lortu genuen eta azkenean, lasterketa irabaztea. Ziklo-krossaren kasuan, bizikletan hasi nintzen urtean ez nuen probatu ere egin. Bigarren urtean animatu ninduen anaiak probatzera, hura ere ibiltzen baita kirol horretan. Maila nahiko txukuna lortu nuen, eta aurten gogoz hartu dut. Leku askotara joateko aukera eman dit aurten goak. Maila ona lortzen joan naiz eta urrutiko txapelketetan parte hartzea ere animatu naiz. Gurasoekin eta anaiarekin joaten naiz txapelketa hauetara, eta haiek laguntzen didate dena prestatzen.

Epe erdira, zein da zure helburua? Zein da begiz jota duzun marka edo txapelketa?

Denboraldi hasieran jartzen ditut helburuak, normalean. Ziklo-krosserako Euskadiko txapelketa jarri nuen jomugan denboraldi hasieran eta Espainiako txapelketan podiumean geratzea gero. Azken hori ez nuen lortu, azkenean. Hala ere, oso pozik nago Euskadiko Txapelketarekin. Munduko Txapelketan parte hartzeko txartela ere lortu nuen. Errepiderako ere helburuak jarri ohi ditut. Momentuz, Euskadiko eta Espainiako txapelketak ditut buruan, baina ikusten joango gara.

Lehiakortasun handia dago txirrindulari txapelketetan ala lagun giroan lehiatzen duzue?

Lasterketa batzuetan tentsioa sortzen da. Pertsona batzuek oihu egiteko ohitura dute eta irainak ere entzun behar izaten ditugu, noizean behin. Lasterketa amaitzean, gehienok harreman ona dugu elkarrekin.

Zure ibilbidean, zer nolako garrantzia izan dute entrenatzaileek?

Infantiletara iritsi arte Usurbilgo taldearekin aritzen nintzen eta astean pare bat aldiz entrenatzen genuen. Txukun ibiltzen ginen denok. Kadete mailara iristean, anaiaren entrenatzaile bera hartzea erabaki nuen, anaia ere bizikletan ibiltzen



Ziklo-krosseko lasterketak prestatzeko, "lagun baten gurasoen lursailean entrenatu behar izan dut aurten".

baita. Pixkanaka entrenamenduak egiten hasi ginen eta lehen fruituak ematen hasi ziren. Emaizta onen erantzukizunaren zati handi bat bada entrenatzaileena asko laguntzen dutelako hobetzen eta kirolarion onena ematen.

Usurbilek badu entrenatzeko azpiegitura egokirik?

Errepidera ateratzen naizenean nahiko urrun joaten naiz eta herrian ez dut ia denborarik pasatzen. Ziklo-krossaren kasuan, Lasartera joaten nintzen lehen, baina orain errugby zelaia edo antzekoren bat eraikitzen ari dira eta lekurik gabe utzi naute. Usurbilen ere ez dago ziklo-krossean entrena-

tzeko moduko azpiegiturarik edo nik ez dut egokirik aurkitu, behintzat. Lagun baten gurasoen lursailean entrenatu behar izan dut aurten. Zirkuitu txiki bat sortu zuten eta han ibili naiz pixka bat.

Oso gaztea zara. Zer ari zara ikasten?

Batxilergoko lehen urtean nago orain. Kirola eta ikasketak ahalik eta ondoen uztartzen saiatzen naiz; ikastolatik iritsi, bazkaldu eta berehala entrenatzera joaten naiz. Itzultzean, etxekolanak egin eta ikasteko aprobetxatzen dut. Denbora ondo aprobetxatuz gero, uztartzeko modukoak direla esango nuke.

Eta etorkizunean, lehiatik erretiratzeko zarenear, kirol munduari lotuta ikusten duzu zure burua?

Kirolari lotuta jarraitzeko asmoa daukat. Ez bada bizikletan, bizimodua kirolari lotutako zerbaitetan oinarritu nahi nuke osasun arloan edo kirol arloan. Oraindik ez dakit zer ikasi, baina nutrizioa edo kirol kontuetatik joko dudala uste dut.



Laburrean

Zenbaki bat:

4.

Kolore bat:

Urdina.

Miresten duzun kirolari bat edo entrenatzaile bat:

Van Vleuten.

Txirrindulari lasterketa gustukoena:

Paris-Roubaix.

Ikusi duzun azken pelikula edo telesaila:

Ez ditut asko ikusi azkenaldian.

Liburu bat aholkatuko diguzu?

Amets Arzallus Antia eta Ibrahim Balderen *Miñan* (Susa).

Zein da zure abestirik gogokoena?

Reggetoi musika entzuten dut.

Zein da gehien jarraitzen duzu sare soziala?

Instagram.

Usurbilgo txoko bat aukera ezazu.

Laurok aurreko mahaia.

Santixabelak ala Sargardo Eguna?

Sargardo Eguna.

Oporretarako toki bat aholkatuko diguzu?

Maldibak.



Sutegin izan ziren eta Yolanda Arrietak oparitutako liburu batekin etxeratu ziren.

Liburuaren Eguna, Aginagako eskolan

Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatu zuten berriki Aginagako eskolan. "Liburuaren Nazioarteko Eguna urte guztian aplikatzen saiatzen bagara ere, aste honetan bereziki gozatu dugu liburuen mundu magikoan", berrieman

diote NOAUA!ri Aginagako eskolatik helarazitako oharrean. "Donostiako eta Usurbilgo liburutegiak bisitatu ditugu, ikasleekin batera liburu sorta erostera joan gara, familian ihes gela digitalean parte hartzeko aukera egon

da, irakurri egin dugu, ilustrazioaz gozatu dugu, ipuinak entzun ditugu...eta gainera Yolanda Arrietak oparitutako liburu batekin joan gara etxera", azaldu digute pozarren.

Sutegi udal liburutegia aipatuta, Liburuaren Hilabetea igaro berri dute bai, baina bertan iragarritako ekintzek ez dute etenik izango datozen asteotan. Datorren hamabostaldirako, Idoia Torregarai Martija herrikidearen 'Mikroi-puinak' liburuaren aurkezpena iragarri dute:

'Mikroi-puinak' liburuaren inguruko solasaldia Sutegin

• 19:00 Idoia Torregarai Martija herrikidearen "Mikroi-puinak" liburuaren aurkezpen liburutegian. "Idoia Torregarai Martijaren eskutik; Mikroi-puinak liburua argitaratu berri du eta bidaia horren nondik norakoak kontatuko ditu usurbildarrak".

Antolatzailea: Sutegi udal liburutegia.

Organo kontzertua Thomas Ospitalen eskutik

Berriki Gipuzkoako Organoak Plazara ekimeneko kontzertuetako bat Salvatore elizan egin zuten. Orain, herrialde mailako "Johann Sebastian Bach zikloa" antolatu du Donostia Musikak, musikari alemaniarraren sorkuntza lan esanguratsuenak ezagutzera emateko.

Gutzira lau ziklo iragarri dituzte eta haietako bat, "Organorako Zikloak" ekimenaren baitako kontzertuetako bat maiatzaren 17an, arratsaldeko 19:30ean Salvatore elizan egingo da.

Parisko Saint-Eustache elizako organista titularra

Thomas Ospitalek eskainiko du. "Euskal Herrian sortua, Thomas Ospital Parisko Saint-Eustache elizako organo handiaren organista titularra da 2015etik".

Lanbide Heziketan aurrematrikulatzeko garaia maiatzaren 24ra arte luzatuko da

Lanbide Heziketa

Gogoan izan, erdi eta goi mailako bost familia profesionalen zikloak eskaintzen ditu Zubietako ikastetxeak: Administrazioa, Elektrizitate-Elektronika, Energia eta Ura, Fabrikazio Mekanikoa, eta Instalazioak eta Mantentzea.

Hitzordua eskatzeko:

- 943 364 600
- Orduetgia: 8:30-17:00 (astelehenetik ostegunera), 8:30-14:30 (ostiraletan) lhusurbil.eus

Oinarrizko Lanbide Heziketa

Bi espezialitate eskaintzen dituzte: ile-apainketa eta estetika zein sukaldaritza eta jatetxe titulua eskuratzeko ikasketak. 15-17 urte arteko gazteei zuzendua dago hez-

kuntza eskaintza hau (DBH 3 egina dutenak edota salbuespenez DBH 2 egina dutenentzat). Bi ikasturterako ikasketaren prozesua da, 2.000 ordukoa. Lanbide bat ikasi eta lan munduan murgildu nahi duten gazteei nahiz gerora erdi-mailako ikasketak egin nahi dituztenentzako da. Amaieran, Oinarrizko Lanbide Heziketako titulua eskuratu dute, erdi mailako ziklorako sarbide zuzena, DBH graduatua lortzeko bidea ere bada edota lan mundurako 1 zenbakidun profesionaltasun ziurtagiria jasoko du.

Lan-metodologia "oso praktikoa da" Atallun kokaturiko eskolako esanetan. "Taile-rran praktika eginez lanbidea ikasten da (egunean 4 ordu). Beharrezkoa den teoria soilik

lantzen da eta lanbidearekin zer ikusi zuzena duten edukiak irakasten saiatzen gara (egunean 2 ordu)". Bestalde, erronkak proposatzen dituzte; "lan munduan gerta daitekeen egoera bat azaldu eta horren inguruan lan egin".

Oinarrizko Lanbide Heziketako eskolan talde txikietan lan egiten dute. Horren harira, "ikasle bakoitzari helburu pertsonalak jarri, jarraipena egin eta ebaluatzen zaie. Ikaslea kokatzen dute hezkuntza prozesuaren erdigunean. "Gaztea ahalduz saiatzen gara. Bere buruan sinisten lagundu. Autoestimulatu". Gaztearen hurbileko testuinguruarekin, "fami- liarekin harreman estua dugu. Enfoke sistemikotik lantzen saiatzen gara. Gaztea erdigunean jartzen dugu".

Informazio gehiagorako:

- 943 360 465
- lhi@usurbil.eus

Erakusketak Sutegin

Maiatzak 14-21:

Buztinzulo Keramika Taldekoek 2023-24 ikasturtean egingo lanen erakusketa.

Maiatzak 22-ekainak 1:

Aitzaga Kultur Elkartearen 30. urtemugako erakusketa.

Kzgunera datozen ikastaroak

Maiatzaren 31ra arte arratsaldez zabalik izango dute, 16:00-20:00 artean. Ekainaren 3tik aurrera, goizez, 9:00-13:00 artean irekiko dute.

• Ekainak 3-14, 9:00-11:00: "Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoa ikasitako baidatzen ikasi".

• Ekainak 17-20, 9:00-11:00: "LibreOffice Writer. Zure tes- tu dokumentuak sortu".

MERKATU TXIKIA

ERREBIZITZAK

SALGAI

Pisua salgai Aginagan, Elutx kalean. 3 logela, 2 bainugela eta sukaldea. Garaje marra eta trastelekua barne. 685711912.

ALOKAIRUAN

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoda: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki baten bila gabiltza. 627184674

Lursail ez urbanizagarri baten bila nabil Usurbilen, Aginagan edo Zubietan. 617 771 303.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUAIKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko, herriaren erdialdean. 636601644.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 652 765 583.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Usurbilgo Andatza tabernan lan egiteko, zerbitzari eta sukalde laguntzaile/sukaldari baten beharrean gaude. Garrantzitsua esperientzia izatea. Deitu 670654272 edota bertatik pasa.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Emakume bat, interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen. 624744514.

Interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen 641136135.

Usurbil edo inguruetan garbiketa lanak egiteko prest, 74745055

Saizarren zerbitzaria behar da, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

Aginaga sagardotegian txotx garaian larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Pertsona helduen zein haurren zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Baita zerbitzari edo garbiketa lanetarako ere. 687126811

Pertsona helduarentzako laguntzailea behar dugu Antiguon asteen bost orduz, euskaraz dakiena. 609 582 242

Pertsona helduak zaintzeko, garbiketa lanetarako... 672 730 902

Garbitasun lanak egingo nituzke. 9:00-16:00 artean, 632157186

BESTELAKOAK

Pertsona helduentzako gurgildun aulkia salgai, berri-berria. Inovys II RG C markakoa. Oinak altuan jartzeko posizioa dauka eta burua eusteko soportea. Intesatuak deitu 666894283 telefono zenbakira (Ana).

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta ipini nahiz duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitetz gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

ZORION AGURRAK



Zorionak Ani!! Apirilaren 29an 11 urte bete zenituen!! Besarkada eta muxu handi bat zuretzat!!

GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna, 09	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Ostirala, 10	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Larunbata, 11	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Igandea, 12	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Astelehena, 13	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea. 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Asteartea, 14	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Asteazkena, 15	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Osteguna, 16	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Ostirala, 17	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Larunbata, 18	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Igandea, 19	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Mañe i Flaquer plaza, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

Pilota txapelketa

Maiatzak 10 ostirala, 19:00

Apaolaza-Urruzola/Lacabe-Cordon

Maiatzak 11 larunbata, 17:30

Kadeteen txapelketa:

Oñate-Caminos/Gorostidi-Olano Seniorrak:

Salaberria-Olaiz

Astiz-Villanueva

Igoa-Irazustabarrena

Garcia-Agirre

Urkizu-Altuna

Barbajero-Santesteban

Pilota partidak

Maiatzak 9, osteguna, 18:30

Kadete 1. Mailan (4 1/2 txapelketa):

Pagola (Pagazpe)-Otaegi (BeharZana)

Infantilak 3. mailan binaka:

Pagazpe -Gazteleku 3

Maiatzak 11 larunbata, 11:00

Infantilak 2. mailan binaka:

Pagazpe-Alde Zaharra

Kadete 1. mailan (4 1/2 txapelketa):

Alejo (Pagazpe)-Elola (Tolosa)

Futbol partidak

Maiatzak 11 larunbata, Haranen

• 9:00 Kadete neskek: Usurbil FT

B-Aiztondo Neskide Kluba B

• 10:30 Infantil mutilak:

Usurbil FT B-Erain Txindoki

• 16:00 Jubenilak:

Usurbil FT B-Orereta Kafea FC

Haranetik kanpo:

• 10:30 Kadete mutilak:

Touring KE B-Usurbil FT

• 13:30 Kadete neskek:

Mondragon CF-Usurbil FT

• 15:30 Erregionalak:

San Marcial CD-Usurbil FT B

• 17:30 Preferente mutilak:

Allerru SCRUD-Usurbil FT

• 17:45 Preferente neskek:

Aiztondo-Usurbil FT

Maiatzak 12 igandea, Haranen

• 16:00 Usurbil FT-Mundaiz SCD

Haranetik kanpo:

10:30 Infantil mutilak:

Orioko FT-Usurbil FT

Hondarribia FK-Usurbil FT

• 17:30 Kadete mutilak, Antzuolan:

Antzuola KE-Usurbil FT

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTEGUNA 09

KALEZAR "Smart Farming" proiektuaren aurkezpena

Ekimen honek Gipuzkoako lehen sektorean erabiltzen den uraren eraginkortasuna hobetzea du helburu.

18:00 Potxoenean.

OSTIRALA 10

KALEZAR Txirikordaren herri-inaugurazioa

Txirikorda belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioaren herri inaugurazioa.

18:00 Ugartondon.

LARUNBATA 10

KALEZAR "Despotorre" umorezko ikuskizuna

Raquel López eta Ane Lindane umoregileen eskutik.

18:30 Emakumeen Etxean.

IGANDEA 12

USURBIL Itzulia Women 2024 txirrindulari lasterketa

Itzulia Women 2024ko azken etapa, Donostian hasi eta amaituko dena, Aginagatik eta Usurbildik igaroko da.

Goiz partean.



Raquel Lópezek eta Ane Lindane (argazkian) Despotorre ikuskizuna eskainiko dute.

Kutsu feminista duen komedia saioa

Raquel López eta Ane Lindane umoregileek 'Despotorre' izeneko ikuskizuna eskainiko dute larunbat honetan, Emakumeen Etxean.

Bi monologista hauek plaza ugaritan aritu dira. Kalezarren eskainiko duten saioak ordu eta erdiko iraupena izango du eta erdaraz izango da. "Eskarmentu handia daukaten bi emakume lotsagabe hauek komediari ikuspegi feminista eta korrosiboa erantzen diote",

usurbilkultura.eus web orrian irakurri dugunez. "Autozentsurarik gabe, aurrean aurkituko duten guztiari barre eta kritika egingo diote".

'Despotorre'

- Maiatzak 11 larunbata, 18:30.
- Emakumeen Etxean, Kalezarren.
- Sarrera doan.
- Oharra: Emanaldi ia osoa gatzelaniaz izango da.
- Antolatzailea: Udala.

Itzulia Women Usurbildik igaroko da


Mendizorrotzetik Oriora eta handik N634 errepidetik barrena Aginagara helduko dira txirrindulariak igande eguerdian, hilaren 12an, 12:55ak aldera. Errepide beretik 13:00ak aldera Usurbil zeharkatzea aurreikusia dute.

Zubietako UdaFest jaia

UdaFest zikloaren baitan, esku eta artelaren eguna antolatatu du Zubietako Eskolako guraso elkarrekin: serigrafia tailerra, jolasak sortzea, apaingarriak... Maiatzaren 14an eta 15ean, arratsaldeko 17:00etatik aurrera Errebote plazan.

'Mikroipunak' liburuaren aurkezpena

Idoia Torregaraiak 'Mikroipunak' (Elkar) izeneko liburua plazaratu du duela gutxi. Zaldieroa marrazkilaria mikroipun horietako asko ilustratu ditu. Usurbildar umoregileak sormen lan honen nondik norakoak azalduko ditu maiatzaren 15ean asteazkena, 19:00etatik aurrera, Sutegi udal liburutegian.



Maiatzaren 15ean, Sutegin.

Kima
MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA
· MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.eus



noaui

Udarrégi
IKASTOLA

ZIRIMARA

2024-2025

IZEN EMATEA: online maiatzak 13-24

<https://labur.eus/zXkr>

*Jolas hezi programa, psikomotrizitatea, natur jarduerak,
saio bereziak, familia planak.*

Izen ematea burutzeko ordainketa egin behar da Ikastolako
ES60 3008 0259 14 2084813324 kontu korrontean

Oharrak:

- Eskola Kirolean parte hartzeko derrigorrezkoa da Oiardo kiroldegiko bazkide izatea.
- Kiroldegiko abonamendurako hobariak eta eskolaz kanpoko kirolean aritzeko dirulaguntzak daude. Informazioa Udalaren webgunean edo kiroldegian.

ATE IREKIAK

USURBIL

• MAIATZAK 7 eta 14 (16:30–18:30) HH5/LH1/LH2

• MAIATZAK 9 eta 16 (16:30–18:30) LH 3/4

AGINAGA • MAIATZAK 6 eta 13 (16:30–18:00) LH 1-6

ZUBIETA • MAIATZAK 8 eta 15 (16:45–18:15) LH 1-6

ZIRIMARA FAMILIAN • MAIATZAK 14 eta 21 (16:30 - 17:30) (0-6 urte)

24/25 IKASTURTEKO ESKAINTZA

Urriak 1etik maiatzak 30era.

Ikasturte osoko kuota: 135 euro

Ordutegia:

KAXKOAN LH 1-2: Asteartetan 16:30 - 18:30

KAXKOAN LH 3 - 4: Ostegunetan 16:30 - 18:30

AGINAGAN LH 1-6: Astelehenetan 16:30 - 18:00

ZUBIETAN LH1-6: Asteazkenetan 16:45 - 18:15

ZIRIMARA FAMILIAN (0-6 urte): Asteartetan 16:30 - 17:30





Kanpaldiak uztaila eta abuztuan

astelehenerik-ostiralera

09:00-14:00

8-16 urte bitartean

USURBILEN!



erreserbak: 666 607 447